

Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

Manifestazioa

Irakurleak artikulu hau irakurtzen duenerako, erabakia hartua izanen da. Erran nahi baita, okerrik ezean, udaberrian izanen da nafar jende euskaltzaleen kale-agerraldia; heldu den maiatzean, zehazki. Manifestazioa, Nafarroako Gobernutik, edo hobe erran, Nafarroa ofizialetik, etorritako eraso-erauntsiari tamainako erantzuna emateko. Zalantzak izan dira, ez gutxi, erantzunaren nolakoaz. Zer egin, nola, nork deitua? Nafarroan bakarrik ala gai-nontzeko herrialdeekin batera? Egiteko-tan, noiz? Orain? Udazkenean? Baina, azkenean, egin eginen da. Nik, behintzat, duela zortzi bat urteko erantzuna daukat gogoan eta gogoko, eta huraxe hartuko nuke ereditako; Oinarriak izeneko ekimenak nafar alkateekin batera deitutako huraxe, hain zuzen ere: jendetsua eta txukuna, azalez eta mamiz. Del Burgok berak ez zuen tamainako erantzunik espero, ezta hurrik emanda ere, eta etxe-ko leiho azpitik jendeketa hura igarotzen ikusterakoan, zirt-zart, telefonoa hartu, Iruñeko EFE agentziako egoitzara deitu eta ohiko larderiak euskararen inguruko adierazpenak egin nahi zituela esan zien, manifestazioak sortutako oihartzunari aurre egiteko. Azken buruan, politikari eskuindarra harrিতua zegoen manifesta-zioaren zenbatekoaz eta nolakoaz. Izan ere, jendetza handia bildu zen, ahalegin berezia egin zen irudi eta mezuetan, hiz-kuntza politikako hiru zuzendari ohiek ere atxikimendua emana zuten, izen han-diko jende aunitzek bezala; baina, batez ere, han kaleko herritarrak elgarretaratu ziren. Han zegoen, konparazio batera, Nafarroa Oinez-era eta Takonerako Sor-tzen-Ikasbatuaren jaira joaten den jen-dea eta, oraingo honetan ere, halaxe beharko luke.

Hasteko eta bat, Nafarroa Garaiko gizarteari zuzendutako deialdia egin beharko litzateke; Euskal Herri osoko ekimena egitea ere ez da sekula sobra izaten, baina lehendabiziko hau, behin-tzat, bego Nafarroan. Eta ni, behinik behin, oinarri-oinarrizkoena aldarrika-tzen hasiko nintzateke: hots, pertsona izate hutsagatik dagozkigun eskubideak,



JOSU SANTESTEBAN

hemen duintasunez bizitzeko eskubidea, bazterkeriarik sufritu gabe bizitzeko eskubidea; eta horrekin batera, Pamplona-ren ondoan Iruñea jarrita ikusteko eskubidea (letra molde eta tamaina berean, gainera). Irrati-dialean, Euskal-erria Irratia hartzeko eskubidea; Beriainen, Mañerun, Ziraukin edo Cortesen seme-alabak euskaraz matrikulatzeko dugun eskubidea: hitz batez, arnasa hartzeko eskubidea. Izan ere, itolarria sekulakoa baita, Nafarroako Haur Kantari Txapelketa bera ere sosik gabe utzi dute, dirurik gabe utzi dituzten bezala herri-telebistak, aldizkariak, euskara ikasteko laguntzak, AEK eta IKA, udaletako eus-kara zerbitzuak. Hori guztia, UPNk erabakita, baina PSNk lagunduta. Gu, gai-

Oinarri-oinarrizkoena aldarrikatzen hasiko nintzateke: pertsona izate hutsagatik dagozkigun eskubideak, hemen duintasunez bizitzeko eskubidea, bazterkeriarik sufritu gabe bizitzeko eskubidea; eta horrekin batera, Pamplona-ren ondoan Iruñea jarrita ikusteko eskubidea. Irrati-dialean, Euskal-erria Irratia hartzeko eskubidea; Beriainen, Mañerun, Ziraukin edo Cortesen seme-alabak euskaraz matrikulatzeko dugun eskubidea: hitz batez, arnasa hartzeko eskubidea.

nera, gizarte honetako herritarrak gara, zergak ordaintzen ditugu, gizarte hau aurrera eramaten ere lagundu dugu eta, ordainez, hutsaren hurrengo jasotzen dugu. Hortaz, oraingo honetan, helburuak ahalik eta jende gehiena biltzea izan beharko luke, eta ahalegin berezia egin, goiburu, mezu, irudi eta bitarteko-etan. Eta aldi berean, denok laguntza eman beharko genuke, atek zabalik baitaude. Ea ba udaberri honetako deial-dian Del Burgo berriz ere zur eta lur uzten dugun erantzunaren zenbatekoaz eta nolakoaz. ■